

'Lasa-Zabala auzia' Epaia

«Galindok, Elgorriagak, Vaquerok, Doradok eta Bayok erabaki zuten Lasa eta Zabala hiltzea»

Entzutegi Nazionalak dio bahiketa eta hilketan guardia zibil gehiagok parte hartu zutela

Eider Goenaga / Madril
Berriemaile berezia

Entzutegi Nazionaleko epaimahaiak 55 orrialdeko sententzia kaleratu zuen atzo **Lasa-Zabala auziari** buruz. Orrialde horietan atalez atal frogatu diren gertaerak, frogatu gabe geratu direnak, auzipetuak zigortzeko argudioak eta delituen inguruko azalpenak ematen dituzte epaileek.

Frogatutako gertaerak

Epaimahaiak hainbat gertaera frogatutzat eman ditu Lasa eta Zabala heriotzekin gertatutakoaren inguruan.

Erabakia • Epaiaren arabera, Galindok eta Elgorriagak erabaki eta prestatu zuten Joxean Lasa eta Joxi Zabala-ren bahiketa, Barne Ministerioan ETaren kontrako legez kanpoko ekintzen inguruko eztabaida zegoela jakitean. Erabaki hori praktikara eramateko Intxaurrondoko Informazio Zerbitzuko guardia zibilez baliatu ziren. Horien artean zeuden, besteak beste, Vaquero, Dorado eta Bayo.

Atxiloketa • «Galindok eman zien agindua bere gizoni, eta pertsona horiek Baionara joan ziren urriaren 15ean, eta Lasa eta Zabala bahitu. Kotxean sartu eta gordeta eraman zituzten muga barrera, Donostiara», dio epaiak. Epaimahaiak ez du frogatutzat ematen Doradok eta Bayok bahitu zituztela, eta bahiketa beste guardia zibil batzuek egin zutelako zalantza airean uzten du.

Atentatua Oñatin • Epaimahaiak frogatutzat jotzen du Oñatiko atentatuaren ostean Galindo eta Elgorriaga Angel Lopez Carrillo polizia-ekin itzuli zirela. Epaiaren arabera, Galindok orduan jaso zuen Lasa eta Zabala-ren bahiketaren berri, eta Elgorriagari helarazi zion zuen informazioa.

Cumbre • Cumbreko galdeketa Angel Vaqueroren aginduetara zeudela dio epaiak, eta haren aginduz aritu zirela Dorado eta Bayo. Halaber, epaiaren arabera, frogatu egin da Galindok eta Elgo-



ANGEL DIAZ / EFE

Julen Elgorriaga, Jorge Argote eta Rafael Vera, atzo, Entzutegi Nazionaletik irteten epaia jakin ostean.

rriagak gutxienez behin bisitatu zituztela.

Alacante • «Galdeketa amaituta, Galindok, Elgorriagak, Vaquerok, Doradok eta Bayok Lasa eta Zabala hil eta desagertaraztea erabaki zuten. Leku bakarti batera eraman zituzten horretarako, eta Alacanteko Bussot herriko Foye de Coves aukeratu zuten gorpuak karetan ehorzteko», dio epaiak. Epaimahaiaren arabera, Bayok eta Doradok eraman zituzten bi gazte tolosarrak Alacanteara, «beste zenbait pertsonaren laguntzarekin».

Inplikazio gehiago • Izenik ematen ez badu ere, epaiak behin baino gehiagotan azpimarratzen du jende gehiagok ere parte hartu zutela Lasa eta Zabala-ren bahiketa eta hilketan. Hala, epaimahaiak

uste du Galindok guardia zibil gehiagori eman ziola errefuxiatuen kontrako ekintzak egiteko asmoaren berri; agian ez zirela Bayo eta Dorado izan Baionara joan zirenak, beste guardia zibil batzuk baizik; galdeketa ere guardia zibil gehiagok parte hartu zutela; eta Alacantera Dorado eta Bayo beste norbaitekin joan zirela. Gainera, epaimahaiak uste du akusatuek Alacanten nolabaiteko laguntza izan zutela, horretarako erreibindikazioa oinarritzat hartuta.

Oinarri juridikoak

► Aurretik egindako kontaketa epaiketan eta instrukzioan azaldu diren lekuko eta frogekin argudiatzen du epaimahaiak.

Bayoren lekukotza • Behin baino gehiagotan aipatu dute defentsek Bayok instrukzioan egindako deklarazioek ez dutela baliorik, baina epaimahaiak ez du horrela uste. «Epaimahaiak ondorioztatu du sinesgarriagoak direla Bayok 1997ko udan egindako deklarazioak, nahiz eta haietan ere ez zuen egia osoa esaten, ahozko epaiketan egindakoak baino». Horretarako bere adierazpeneko hainbat puntu aztertzen ditu.

- **Grabazioa**: Epaimahaiak ez du sinesten Bayok aurkeztutako grabazioa espetxean egin zuenik, «horretarako beharrezko tresnak izango balitu ere, esperientziaren arrazoiak aurkakoa adierazten baitu».

- **Edukia**: «Grabazioan Bayok esaten du Galindok

Bahiketa

■ ■ ■ «Galindok eman zien agindua bere gizoni, eta pertsona horiek Baionara joan ziren urriaren 15ean, eta Lasa eta Zabala bahitu. Handik Donostiara eraman zituzten kotxez»

Hiltzeko erabakia

■ ■ ■ «Galdeketa amaituta, Galindok, Elgorriagak, Vaquerok, Doradok eta Bayok bahituak hil eta desagertaraztea erabaki zuten»

baztertuta utzi dituela, eta ezinezkoa litzateke Galindok baztertuta uztea legez kanpoko ezer egin ez balute», dio epaiak, grabazioaren edukia-ri sinesgarritasuna emateko.

- **Cumbre**: Bayok esan zuen Cumbreko deskribapena sumariotik irakurritakoa-ekin eta arkitekturaz dituen ezagutzekin egin zuela, baina epaimahaiak ez du sinesten. «Datu oso zehatzak eman zituen, eta ez aurretik Lopez Carrillok emandakoak bakarrik. Gainera eraikinaren egitura ikusita ezinezkoa da jakitea salak lehen nolako itxura zuen, sukaldeko atea aldatu zen edota lehengo sukaldea gasarekin zebilen».

Poliziak Iparraldean • Epaiaren arabera, Espainiako Segurtasun Indarrak Ipar Euskal Herrian zebiltzala gauza ziurra da, eta hori esateko hainbat lekukotza aipatzen ditu. Hala nola, han zeuden errefuxiatuak, han egon zirela onartu zuten poliziak, Perotek CESIDeko gizonak Iparraldean egiten zuten lanari buruz esandakoak eta Sancristobalek berak esandakoa.

Pedro Luis Migueliz • Pedro Luis Migueliz Txofa lekuko babestua inguruan epaiak guztiz baztertzen ditu defentsak haren lekukotza baliogabetzeko egindako saio

(hurrengo orrialdean jarraitzen du)